



28. zEnbakiA
zu bai polita!

0. AZALA

Oraingo honetan, badirudi (beste hainbat gauzaren artean) animaliak izango ditugula mintzagai, ezta? Azalean, gure lagun Largabista ageri zaigu, txori beltz bat eskuan duela. Largabista pozik dabilela dirudi! Ez, ordea, txoriak... Beldurturik ote? Triste? Harriturik?... Zer uste duzue zuek? Ezagutzen al ditugu benetan animaliak?

Aldizkariarekin martxan jartzeko, badakizu milaka gauza ezberdin eta interesgarri egin ditzakezula zure haurraren konpainian. Ez ahaztu sormena eta sortzeko dugun gaitasuna infinitua dela... Hala ere, buruari buelta askorik emateko gogo gutxirekin bazabiltza, baditugu gure ideien motxilan hainbat proposamen, irakurzaletasunaren bide erakargarri horri ekiteko! Hasi nahi? Goazen, bada!

Lehenik eta behin, animatu haurra aldizkaria eskuetan hartu eta azala irakurtzera, begiratzera... Gero, hau egin zenezake:

- Zure haurrari galdetu animalia batzuen inguruan dituen aurreiritziei buruz, esaterako:
- Nolakoak iruditzen zaizkizu txoriak?
- Zein animalia duzu gogokoen? Zergatik?
- Gertatu al zaizu noizbait animalia bat mota batekoa zela pentsatu eta ondoren ohartzea ez zela zuk uste zenuen bezalakoa? Adibidez: katuak txintxoak direla uste izan, eta gero katu gaiztoak ezagutzea; saguekin beldurtu, eta gero maitagarriak direla konturatzeta; tigreak gaiztoak direla pentsatu, eta gero tigrekumeak nola zaintzen dituzten ikusi eta horren gaiztoak ez diela ohartzea... Hori guztia oso interesgarria izan daiteke animalien inguruan haurrak izan ditzakeen aurreiritzi eta estereotipoak desagiteko! Izan ere, badakigu horrelako etiketatze prozesuek ez dutela batere onik egiten. Beraz, jarri zure haurra ere prozesu arriskutsu horien ondorioen jakinaren gainean.



28. zEnbaki
zu bai polita!

1. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atalean, hainbat testu, hitz eta beste dituen haurrak irakurtzeko. Dena dela, eskuinaldean dagoen testua izan daiteke, gure ustez, solasean jarduteko testurik egokiena.

Testu interesgarria da oso. Edertasunaren inguruan hitz egiten digu, eta, beste hainbat kontzeptuz ez ezik, berba egiten digu edertasun hitzaren gehiegizko erabilerak edo erabilera desegokiak eragin ditzakeen ondorioei buruz ere.

Hauxe proposatzen dizugu:

- Galdetu haurrari ea badakien edertasuna zer den.
- Adieraz ditzala ederrak iruditzen zaizkion hiruzpalau gauza.
- Galdetu ea zergatik izendatu dituen horiek.
- Gero, proposatu testua bion artean irakurtzeko.
- Testua irakurri ondoren, egin galdera hauek haurrari:
 - Zer ikasi duzu testu honetan?
 - Ados zaude azken ideiarekin? Alegia, edertasunaren ideia gehiegi azpimarratzea desegokia izan daitekeela uste al duzu? Bai / Ez. Zergatik?
- Ondoren, azaldu haurrari edertasuna subjektiboa dela oso; begiratzeko duten begien arabera dela eta pertsona guztiak gaitasun ederrak modu batera edo bestera; edertasuna singulartasun eta berezitasunean oinarritzen dela, eta singulartasun hori dela indartu eta errekonozitu behar dena...



28. zEnbAkia
zu bai polita!

2. PUPU ETA LORE

Gure haurtxoen komikia irakurtzeko, hau egin zenezake:

- Esaldiak orri zuri batzuekin estali.
- Haurrari esan bion artean (edo bakarrik nahiago badu, bakarrik) irudietan zentratu eta bertsoak sortzeko.
- Bertsoak egindakoan, kendu orri zuriak eta konparatu bion artean sorturikoa eta bertan ageri zena.
- Gero, animatu haurra aldizkariko bertsoak irakurtzera.
- Amaitzeko, galdetu ea zein den bertsoetatik gehien gustatu zaiona (zuek sorturikoa barne), eta galdetu zergatik aukeratu duen hori.

3. PIRRI TX ETA PORRO TX

Gure laguntxoek komikia irakurtzeko zera proposatzen dizugu:

- Estali komikiaren irudiak, eta esan haurrari irudiak ikusi gabe irakurriko duzuela. Marrazturik ageri diren irudiak (baina ikusi ezin dituzuenak) irudikatzeko, imajinazioz bete beharko ditu bere buru-bihotzak!
- Irakurri, nahi duzuen bezala: bion artean, berak bakarrik, etxeko besteren batekin...
- Behin komikia irakurrita, eskaini orri zuri bat, eta animatu irakurri duen hori irudikatzen! Seguru gaude marrazki izugarri eder eta polita egingo duela!
- Amaitzean, txalotu egindako marrazkia, eta ikusi ea baduen irudi originalaren antzik! Aurki itzazue ezberdintasunak! Eta jolastu! Ez ahaztu jolasean gabiltzala une oro!



28. zEnbaki
zu bai polita!

4. BARRITSU

Atal honi hasiera emateko, eta kontuan izanda Aitorren hizkuntza zaharraren abestiarekin hasten direla komikian, hau egitea proposatzen dizugu!

- Haurren arreta erakartzeko, hasi abestia kantatzen.
- Haurra gerturatzen bazaizu, esan komikian ere gure lagunek abesti hori kantatzen dihardutela.
- Utzi haurrari libre komikia irakurtzen. Nahi duen moduan eta nahi duen erara irakur dezala!
- Komikia irakurritakoan, galdera hauek egin:
 - Garai batean noraino iristen zen euskara? Ea zer erantzuten duen haurrak. Lagundu mapa irakurtzen, eta argitu gaiaren inguruan izan dezakeen zalantza edo galdera oro.
 - Existitzen al zen euskara erromatarrak Euskal Herrira etorri aurretik?
 - Badakizu nola dagoen gaur egun euskara Euskal Herrian? Ez badaki, azaldu hitz gutxitan gure hizkuntza zertan den, eta zein garrantzitsua den, bizirik iraun dezan, gero eta gehiago erabiltzea...

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Tiritatxok, bere aholkuetan, emozioen ezagutza eta erabilera egokiaren inguruan hitz egiten digu. Gauza baliagarri asko esaten dizkigu beti; orain ere, ideia eta aholku interesgarri asko dakarzkigu. Irakurriko dituzu guztiak haurrekin?

Hau egin dezakezue:

- Esan haurrari etxetxoaz aztertzeke eta ikusteko bertan ageri diren ekintzak.
- Gero, zuk zeuk etxeko ekintza bat aukeratu beharko duzu, eta haurrak asmatu egin beharko du ekintza hori zein testuri dagokion.
- Ondoren, alderantziz egin dezakezue. Haurrak aukera dezala ekintza, eta zuk ekintza horri dagokion esaldia irakurri beharko diozu haurrari.

Baietz ondo pasa!



28. ZENBakia
zu bai polita!

6. DOZENAN 13

Atal honetan, gure proposamena da zu eta haurra toki goxo eta lasai batean eseri eta zuk irakurtzea haurrari ipuin europarra. Ipuin horren amaieran, irakurri diozun istorioaren inguruko marrazkia egitea proposatzen dizuegu! Bide eman imajinazioari, eta marraztu nekatu arte!

Gero, nahi duzuen egin dezakezue marrazkiarekin. Zure haurrak bere lagunen bati oparitu diezaioke marrazkia eta, bide batez, ipuina kontatu! Edo irakurri! Nahi duena! Horretarako, animatu haurra IRRIA alea eskolara eramatera!

7. ZENBATAK

Zenbaten komikia irakurtzen hasi aurretik, egin galdera hauek haurrari:

- Irakurtzen hasi gabe, begiradatxo bat emanda, zertan uste duzu dihardutela gure lagun zenbatek?: bertsotan ari direla uste duzu?, elkarrizketak ote dira?... Ea, testu formaren arabera, zer erantzuten duen.

Jarraian, utzi haurrari lasai irakurtzen, eta, irakurri ondoren, egin galdera hauek:

- Zer da gure lagun zenbatentzat edertasuna?
- Ados al zaude haiekin?
- Zer dio azken esaldiak? Zer ulertzen duzu esaldi horrekin?
- ...

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Jolas gaitzen gehixeago!

Oraingo honetan, "txoko txiki txukunean" agertzen zaiguna irakurtzen hasi aurretik, esaiozu haurrari hau: "Irakurri adi-adi; izan ere, amaitzean gauzatxo bat proposatuko dizut! Animatuta? Ea bada!"). Irakurtzen amaitzean, orri zuri batean, bertan agertu diren hitzak nahastuta jarri, banan-banan. Gero, emaiozu haurrari orria, eta esaiozu: "Orain, nahasturiko hitz batzuen zerrenda emango dizut! Hitz horietako bat magikoa da, eta zein den asmatuz gero, zerbait gertatuko zaizu! Beraz, zure lana hitz hauek zein diren asmatzea izango da".



28. zEnbakiA
zu bai polita!

9. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK: KUKUA

Euskal Herriko Animalien atalean, hemengoak diren animalien informazioa jaso ahal izango dugu. Jakina da irakurtzen ditugun testuetako zenbait hitz ezezagun, arraro, ezberdin... egiten zaizkigula, ezta? Gure proposamena hau da:

- o Hitz bilduma bat osatzen hastea.
- o Horretarako, multzo batzuk osatuko ditugu:
 1. Hitz arraroak.
 2. Hitz ezezagunak.
 3. Ekintza adierazten dutenak.
 4. 'Nolakoak?' galderari erantzuten diotenak.
 5. ...

10. FILOSOFO TXIKIAK

Gure filosofo txikiek beti darabilte zerbait esku artean. Oraingo honetan, eztabaidan jarri dute marrazki baten edertasuna.

Atal honetan, egunkari baterako albiste bat idaztea proposatzen dugu. Zer iruditzen?

1. Irakurri komikia.
2. Hartu orri bat, eta, heldu baten laguntzarekin, ahalegindu albistea idazten.
3. Horretarako, azaldu haurrari zer egin behar duzuen:
 - Azaldu haurrari zer den albistea.
 - Irakur diezazkiozu Interneten aurki daitezkeen albiste arraro batzuk.
4. Amaitzeko, gorde albistea karpeta batean.



28. zEnbakiA
zu bai polita!

11. MARTIN BERTSO

Jarraian, detektibe lanak egiteko parada eskainiko dizuegu. Martin Bertsoren ibilerak irakurri ondoren, hau egingo dugu:

- Orri zuri batean, detektibe lanak egiteko lupa bat marraztu, eta moztuko dugu.
- Gero, puntu hauek zehaztuko ditugu:
 - Komikiaren protagonista.
 - Zer gertatu den.
 - ...
- Puntuak jarri ondoren, hartu komikia berriz, eta, lupa esku artean duzuela, ea gai zareten jarritako puntuai erantzuna aurkitzen.

12. LAGUN

Marraztuko al dugu? Ea bada:

- Aurrean duzun haurrari orri bat hartzeko esan, eta utzi tarte bat orrian, zu zeu komikia irakurtzen ari zaren bitartean, haurrak marraz dezan irakurritakoa.
- Jakina, alderantziz ere egin dezakezue: haurrak irakurri eta zuek marrazkia egin.

13. MARIKALANBRE

Marikalanbreren atalean, gure nahia, hain zuzen, gure hurrek beste animaliei buruz dituzten aurreiritzien gaineko gogoeta bideratzea izango da. Irakurri eta egin galderak haurrari. Horrez gain, galdetuko diegu bestelako edo guztiz kontrakoa den kasuren baten jakitun diren edo ez. Adibidez, katua goxoa eta txintxoa dela pentsatu, eta hark harramazka egin; saguarekin beldurtu, eta maitagarria dela ohartu; ardia makala dela pentsatu, eta bizkorra dela ohartu; txakurren zaunkekin izutu, eta gu babesteko dela konturatu...



28. zEnbakiA
zu bai polita!

14. LARGABISTA

Orain ere, Largabistak ez du galdu aukera bere jakituria besteekin ere partekatzeko. Gure nahia, hain zuzen, hiztegia zertxobait lantzeko jolas bat egitea izango da.

- Azpimarratu komikian dauden hitz batzuk.
- Irakurtzen ari zareten bitartean azpimarratutako hitzetara iristean, sinonimoa, hau da, gauza bera esan nahi duen beste hitz bat asmatu behako duzue.
- Kontuan izan haurraren adina, eta eskaini laguntza behar den guztietan.

15. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Jarrai dezagun irakurtzen. Orain ere, irakurri ondoren egiteko jolas bat proposatzen dugu:

- Hautatu hitz gakoak.
- Idatzi hitz horiek beste orri batean.
- Ea nork aurkitzen dituen azkarrago.
- Amaitzeko, tartetxo bat hartu hitz horien gainean pentsatzeko. Adibidez, behar berezien inguruan, zein da zuen iritzia?



28. zEnbAkia
zu bai polita!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Istorio polit askoa kontatzen digute komiki honetan, hunkitzea lortzen duten horietakoa... Istorio honetan, Tourette sindromea duen haur bat ageri zaigu. Komenigarria ikusten dugu sindromearen inguruan informatzea komikia irakurri aurretik, gero zure haurrari informazio egokia eman ahal izateko.

Sindromearen inguruan informazio bildu eta gero, azaldu haurrari komikian Tourette sindromearen inguruan hitz egiten dutela eta sindromea zer den azalduko diozula.

Amaitzeko, irakurri komikia nahi duzuen bezala, eta animatu haurra Ane Pirataren ahotik irakur ditzakegun esaldi politik edo esanguratsuak komentatzera... Adibidez: “Salto egiten duzunean, barruan daramazun ipotsak irribarre egiten dit...”, “Arkatzarekin egiten dituzun hiru kolpetxo horiek entzutean, poztu egiten naiz, nire ondoan zaudela gogoratzen naizelako...”. Komentatu haurrarekin zer-nolako garrantzia duen horrelako esaldi politik egiteak; sindromea, arazo gisa ikusi beharrean, alderdi positiboak izan ditzakeela ikusteak eta alor positibo horiek azpimarratzeak...

Ainhoa Mendizabal eta Saioa Ibarguren